



***IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA
ETA IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A.***

***2023KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU BATERATUAK
ETA KUDEAKETA TXOSTEN BATERATUA
IKUSKARITZA-TXOSTENAREKIN BATERA***



***IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA
ETA IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A.***

***2023KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU
BATERATUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA***



AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTU BATERATUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEKO

Batzarrari:

Iritzia

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN (Mankomunitatea) eta bere mendeko den IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A. (Sozietatea) sozietatearen urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu bateratu hauek, 2023ko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazi kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak, eskudiru-fluxuen egoera-orriak eta memoriak, denak bateratuak, biltzen dituzte.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontu bateratuek, arlo esanguratsu guztietan, 2023ko abenduaren 31n Mankomunitatearen eta bere mendeko sozietatearen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi zehatza adierazten dute, baita aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion emaitzena eta eskudiru-fluxuena ere –denak bateratuak–, aplikagarria den finantza-informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2.a oharrean adierazten dena), eta bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorritz.

Iritzia emateko oinarria

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautzen duen araudia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizunak, arau horien arabera, *Urteko kontu bateratuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak* atalean zehazten dira.

Mankomunitatearengandik eta bere mendeko Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontu bateratuen ikuskaritzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontu-ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi erregulatzailearen arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun ikuskaritza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.



Ikuskaritzaren alderdi garrantzitsuenak

Ikuskaritzaren alderdi garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, epealdi honetako urteko kontu bateratuen ikuskaritzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku horiek urteko kontu bateratuen osotasunari dagokion gure ikuskaritzaren testuinguruan aztertu ditugu eta hauei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Erantsitako balantze bateratuko “Pasibo ez arrunta” epigrafeak barnean hartzen du, 28.801 mila euroko zenbatekoaren arabera, Gongorako HHTZko zabortegia ixtetik eta ixte ondorengo mantentze-lanetatik (ixten den egunetik aurrera hurrengo 30 urteetan egin beharreko mantentze-lanak dira) eratorrita egin beharreko ingurumen-jarduketekin lotutako hornidura. Haren garrantzia aintzat hartuta, bere arrazoizkotasuna egiaztatzea alderdi adierazgarri eta nabarmena da gure kontu-ikuskaritzan.

Indarrean dagoen legeria aplikatze aldera, gutxienez bost urtean behin, kalkulaturako horniduraren oinarrian dauden azterlanak berrikusi behar dira, ixteak eta zabortegiaren ondorengo mantentze-lanek eragindako gastuak estaltzeko bermeari eusteko helburuarekin. Sozietateak egindako azken egindako azken azterketa 2021ean egin zen.

Arlo honekin lotuta gauzatu ditugun kontu-ikuskaritzako gure prozedurek, besteak beste, aipaturako berrikuste hori benetan egin dela egiaztatzea eta bere emaitzak kontabilitatean erregistratutako zenbatekoarekin erkatzea hartu dute barnean. Halaber, 2023ko ekitaldian gauzaturako finantza-eguneratzearen zuzentasuna egiaztatu dugu. Azkenik, erantsitako memoria bateratuan, arloarekin lotuta jakinarazi den informazioaren egokitasuna kontuan hartu dugu (4., 11. eta 16. oharrek).

Bestelako informazioa: kudeaketa-txosten bateratua

Bestelako informazioak 2023ko ekitaldiko kudeaketa-txosten bateratua besterik ez du hartzen. Hori aurkeztea Mankomunitateko lehendakariaren eta kontu-hartzailearen erantzukizuna da eta ez dago urteko kontu bateratuen barne.

Urteko kontu bateratuei buruzko gure ikuskaritza-iritziak ez du kudeaketa-txosten bateratua kontuan hartzen. Gure erantzukizuna kudeaketa-txosten bateratua dela eta, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza araudiaren arabera hauxe da:

a) Informazio ez-finantzarioaren egoera bateratua, aplikatu beharreko araudian aurreikusitakoaren arabera eman dela egiaztatzea solik, eta bestela, horren berri ematea.



b) Kudeaketa-txosten bateratuan barneratzen den gainontzeko informazioa urteko kontu bateratuekin bat datorren aztertzea eta informatzea, aipatutako kontu ikuskaritzan lortutako entitatearen ezagupenean oinarrituz, eta baita kudeaketa-txosten bateratuaren atal honen edukia eta aurkezpena jarraitu beharreko araudiarekin bat datorren ebaluatzea eta informatzea ere. Egindako lanean oinarrituz hutsegite esanguratsurik dagoela ondorioztatzen badugu, horren berri emateko beharra dugu.

Aurrean deskribatutakoa egindako lanean oinarrituz, aurreko a) atalean aipatutako informazioa aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoaren arabera ematen dela egiaztatu dugu, eta baita kudeaketa-txosten bateratuak jasotzen duen gainontzeko informazioa 2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuekin bat datorrela, eta haren edukia eta aurkezpena bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin ere.

Mankomunitateko lehendakariaren eta kontu-hartzailearen erantzukizuna urteko kontu bateratuekiko

Mankomunitateko lehendakari eta kontu-hartzailearen erantzukizuna da erantsitako urteko kontu bateratuak egitea, Mankomunitatearen eta mendeko Sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitza bateratuen irudi fidela adieraziz, erakunde horiei Espainian aplikatzekoa zaien finantza-informazioaren esparru arauemailearen arabera, eta baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontu bateratuak prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolaz arduratzea ere.

Urteko kontu bateratuak prestatzean, Mankomunitateko lehendakariaren eta kontu-hartzailearen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Mankomunitateak eta mendeko Sozietateak duten gaitasuna baloratzea, eta, hala badagokio, funtzionamenduan dagoen enpresarekin lotutako gaiak aditzera ematea, funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabilita; salbu eta lehendakariak eta kontu-hartzaileak aipatu diren erakundeak likidatzeko edo eragiketak bertan behera uzteko asmoa badute, edo beste aukera errealistik ez badago.

Urteko kontu bateratuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzunkizunak

Gure helburuak hauek dira: urteko kontu bateratuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen auditoretza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza araudia jarraituz egindako ikuskaritzak existitu daitekeen



hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontu bateratuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautegia jarraituz egindako ikuskaritza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontu bateratuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzeko eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurreragatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihespenaren ondorioz izan daitezke.
- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, Mankomunitatearen eta mendeko Sozietatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta Mankomunitateko lehendakariak eta kontu-hartzaileak emandako informazioa ere.
- Mankomunitateko lehendakariak eta kontu-hartzaileak funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Mankomunitatea eta mendeko Sozietatea duten gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontu bateratuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzialdatua eman behar dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Mankomunitatea eta mendeko Sozietatea funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezakete.




- Urteko kontu bateratuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontu bateratuek transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.
- Ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu erakundeen informazio finantzarioari edo Mankomunitatearen eta mendeko Sozietatearen barneko enpresa-jarduerei buruz, urteko kontu bateratuei buruzko iritzia adierazteko. Mankomunitatearen eta mendeko Sozietatearen auditoretzaren zuzendaritzaren, gainbegiraketaren eta burutzearen erantzule gara. Gure ikuskaritza-iritziaren erantzule bakarrak gara.

Mankomunitateko lehendakariarekin eta kontu-hartzailearekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, ikuskaritzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeke, bai eta ikuskaritzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

Mankomunitateko lehendakariari eta kontu-hartzaileari jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, epealdi honetako urteko kontu bateratuen ikuskaritzan adierazgarrienak direnak zehaztu ditugu, hauek izanik, ondorioz, gure ustez arriskurik garrantzitsuenak.

Arrisku hauek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek argitaratzea debekatzen badute.

Betean Auditoría, S.L.P.



José Ignacio Miguel Salvador

2024ko apirilaren 23a

AZALPEN-OHARRA: sinadura elektronikoa ikuskapen-txosten honen osotasuna eta edukia justifikatzeko eta egiaztatzeke bakarrik ematen da, baita sinatzailearen identitatea egiaztatzeke ere.



***IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA
ETA IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A.***

***2023KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU
BATERATUAK ETA KUDEAKETA TXOSTEN BATERATUA***